

# Arroltzeak

**Erhi txontxongiloak : bat egurra, bestea sua, arroltzea..., pertsonaiak asma eta antzerki ikusgarria antola.**



**ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ**

## Arroltzeak mintzagai

Zer dago barnean ? Goringoa / zuringoa.

Nola jaten da ? Kuskuan, moletan (tortilan), freiturik, gogorturik, ...

Zein janaritan aurki daiteke ? Adibidez bixkotxean.

Hiru galdera horien inguruan ekimen franko asma daiteke.



## Antzerki jokoa

Bertso-ipuinean dauden bost egintzak berriz azaldu eta, haur bakoitzari funtzio bat ematen zaio eta elgarrekin antzetzen dute. Ikasle batzuek bertso-ipuineko egintza bat mimatzen dute. Une berean, besteek, irakaslearen « Zer egiten ari da ? » galderari, erantzun behar diote.

## Errezeta

Arroltzeak kuskuan presta.

## Arroltze irudiak simetriaren lantzeko

Irakasleak neurri guzietako arroltze marrazkiak erditik moztzen ditu, nahasten eta ikasleei banatzen. Hauek arroltzeak berriz osatu behar dituzte.

Aditzaren aspektua.

**ARI IZAN** aditz-lokuzioa.

- Nik egurra ekarri/ko dut.
- Zuk sua eginen duzu.
- Zer ari da Julen?
- Julen sua egiten ari da.

-(R)EN zabego genitiboa.

Ezezko forma.

- Arroltzearen erdia atzeman dut.
- Ez dut arroltzearen erdia atzeman.